

ARTELANA, KOMUNIKAZIOA, INSURJENTZIA ERAKUSKETA ETA JARDUERAK

Bere 30. urtemuga dela-eta, Zintzilik irratiak artelana, komunikazioa eta insurjenziari buruzko erakusteta antolatu du Errenteria-Oreretan. Merkatuzarren izango da otsailaren 17tik martxoaren 4 arte, eta arratsaldero bisitatu ahal izango da. Arratsaldeko 7etatik aurrera erakusketak proiektzio eta hitzaldi batzuekin osatuko dira.

Erakusketa honek diziplina ezberdinetako lanen bitartez bisitariekin bestelako komunikazio harremanak lantzea du helburu, modernitateak ezartzen digun indibidualizazioaren aurrean eta komunitate identitarioa eraikitzeari begira.

Informazio gehiagorako: (Pirata 722 244 603)

ARTELANA, KOMUNIKAZIOA, INSURJENTZIA ERAKUSKETA ETA JARDUERAK

Otsailak 17tik martxoaren 4ra arte, arratsaldez.

Merkatu Zahar (Orereta-Errenteria)

IREKIERA OFIZIALA

Otsailak 21, larunbata

LUNTX-a, arratsaldeko 18:00tan

KONTZERTUA, arratsaldeko 19:30tan

CANSHADOWS (Jazz-Rock, Donostia)

ERAKUSKETA

Otsailak 17tik martxoaren 4ra arte, arratsaldez.

Merkatu Zahar (Orereta-Errenteria)

Ekimen honetan hainbat **margolari** ezagunek parte hartuko dute: Iñaki Saez bilbotarrak, Idoia Montón, Estibalitz Álvarez, Detritus eta Jose Luis Chasco donostiarrek, Hondarribiako Inwokok, Donostian bizi den Iñaki Rafiterra zaragozarrak, Txokolarke kolektiboak, Iban Izagirre marrazkigile azpeitiarrak, eta David Sengueta txekiarrak Euskal Herrian izan zeneko sortutako lanekin.

Eskulturari dagokionez, Oreretako Javier Olaizolak (Jimmy) natura-hirigintza elkarrekintzan jarriko ditu espazioan, eta bere lanak aurkeztuko ditu Lezoko Peliar eta Patxi-Txikiren lanekin batera.

Argazkigintzan J.A. Areta Goñiren (Juxe) lanak ikusgai egongo dira, naturaren inguruko argazkiekin.

Ávilako Yolanda Menesesen oihalezko lanak (**Pachwork**) ere egongo dira.

Zintzilik irratiko kide diren Luca kataluniarrak eta Iñakik **sonorama** bat eta "Hystory of madness" **diaporama** eskainiko dizkigute, hurrenez hurren.

Erakusketan zehar Kemen, Omar K Sap eta Ramón Zabalegi lesakarrek zuzeneko **murala** egingo dute, komunikazioa eta artea lotuko dituen.

Kontrainformazioa ere presente egongo da fanzine, aldizkari, kartelak eta pegatinen erakusketa batekin. Era berean, mugimendu sozial eta inkorformistei buruzko liburuak ere ikusgai egongo dira, non horien borroka molde, autoafirmazio eta erresistentzia erak kontatzen diren.

MARGOLARITZA:

Detritus, Idoia Montón, Jose Luis Chasco, Iban Izaguirre, Estibalitz Alvarez, Txokolarte, Inwoko, Iñaki Rifaterra, David Segeta, Iñaki Saez.

ESKULTURA:

Patxi Txiki, Pelier, Javier Olaizola (Jimy)

MURALAK:

Kemen, Omar K Sap, Ramón Zabalegi

ARGAZKIGINTZA:

J.A. Areta Goñi (Juxe)

PACHWORK:

Yolanda Meneses

SONORAMA:

Luka

DIAPORAMA:

History of madness

ARTXIBOAK:

Artxibismo, fanxinoteka, kartelak, aldizkariak, pegatinak, diskak...

JARDUERAK**DOKUMENTALAK ETA HITZALDIAK**

Arratsaldeko 19:00 tan

Merkatuzar (Orereta-Erretereria)

Otsailak 18, asteazkena

Filma- **CIUTAT MORTA**- Kataluniako poliziak gazte batzuen aurka burututako operazioaz eta diferentziaren kriminalizazioaz hitzegiten digu. Prozesu horren bukaeran, Patricia gazteak bere buruaz beste egingo du, jarraipen injustoaren ondorioz.

Otsailak 19, osteguna

Filma- **UN PASEO POR ARAN**- Splitboarden 1200 metrotako igoera baten bi lagunen abentura. Mendi zurietako borondatezko bizitza erakusten du. Ze askatasunarekin arnasten den!

Otsailak 23, astelehena

Filma- **GASLAND**- Hartu txiskero bat eta etxeko txorrotan jarri. Imajinatu su hartzen duela. Bada hori gertatzen da AEBetako eremu askotan haustura hidraulikoarengatik: «fracking» arengatik. AEBetako multinazionalak garatu dute zulatzeko teknika hau «ohikoak ez diren gas jalkinak» idokitzeko. Akuiferoak kutsatzen ditu atzerakorik ez duten ondorioekin.

Otsailak 24, asteartea

Filma- **ATEAK ZABALDU**-

JUANMI GUTIERREZ egilearen parte hartzearekin

Atean ostikada, egoitza bortxatzeak, polizia-kargak, kale indarkeria... Okupazio mugimendua horrelako estereotipoekin lotu ohi dute. Aurreiritzi hauen azpian, hala ere, errealitate konplexu bat ezkututzen da, historiaren ibilbideak baztertuta sinesten genuen ideologia eta bizimoldeak gogorarazten dizkiguna.

Otsailak 25, asteazkena**PATXI EGILUZ egilearen parte hartzearekin**

Filma/estrenaldia- **ZERRAUTS OGIA: GOSEAREN GREBAK**

1936ko estatu kolpearen eta osteko gerraren ondorioz gosea eta urritasuna zabaldu ziren Francisco Francoren diktaduran. Erregimen politikoak odola eta gartzela erabili zituen une horretako gizon-

emakumeen kontra; baina klase herrikoiek duintasuna eta kuraia mantendu zuten haien bizi baldintzen eta askatasunen alde borrokatuz. Hasierako protesta marmarra izan zen, ostean egin zuten oihu grebek.

Otsailak 26, osteguna

Filma- NOS LO QUITARON TODO

Uztailaren 18ko altxamendua baita ondorengo "Cruzada" ere klase ikuspuntu batetik begira daitezke. Populazioaren %50 nezakazaria zen lurralde batean, Errepublikak 1932an aprobatutako Nezakal Erreforma itzaropena zabaldu zuen lurrik gabeko jornalariengan. Garaiko oligarkiak, gaur IBEK-35ean topa dezakeguna, erantzun odoltsua izan zuen, lapurketa orokorrak zabalduz eta epe luzeko estrategiak garatuz, biztanleriaren txirotasuna helburu zutela.

Otsailak 27, ostirala

Hitzaldia- SOFTWARE LIBRE Y PROYECTOS LOCALES

Software Libre erabiltzaileen softwarea martxan jartzeko, kopiatzeko, zabaltzeko, ikasteko, aldatzeko edo hobetzeko askatasunari egiten dio erreferentzia. Zergatik eta zertarako aplikatu dezakegu mugimendu sozial eta lokaletara?

Martxoak 2, astelehena

Filma- ABRIL AL CABANYAL. CRÒNICA VIVA D'UNA RESISTÈNCIA.

Cabanyal auzo balentziarraren oposizioa etxebizitzaren eraisketen eta auzoko birgaitzearen aurka.

Martxoak 3, asteartea

Filma- THE SEGOVIA BIG BAND

Denbora pasata, 30 urte baino gehiago, MIL talde anarkistako Solé Sugranyes-en ilobak bere osabarekin batera ihes egin zutenen bila abiatu zen. Militante anarkistaren heriotza oinarritzat hartuta, dokumentalak hainbat gai jorratzen ditu: Segoviako ihesaldia bera eta nola gertatu zen, zerk bultzatu zituen gazte horiek ETAn sartzerara... ibilaldia luzea, gaur egungo egoera aztertuz amaitzeko.

Martxoak 4, asteazkena

Filma- MERCADOS FUTUROS

Eskandalu inmobiliarioa eta memoria pertsonala eta kolektiboaren galerari buruzko lan ikusgarria.